



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO UGALDET XO AUZOKO ZUAZNABAR KALEAN, ZANGA IREKI GABE, SANEAMENDU HODIEN BERRIZTATZE PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.

2009ko martxoaren 17an Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Zuaznabar kalean, zanga ireki gabe, saneamendu hodian berriztatze proiektua” obrak behin behingo izaeraz Insituform Technologies Iberica S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Insituform Technologies Iberica S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Zuaznabar kalean, zanga ireki gabe, saneamendu hodian berriztatze proiektua” obrak behin-betikoz Insituform Technologies Iberica S.A. enpresari esleitzea erabaki da, 119.810,73 €ko prezioarekin (BEZ barne), 8 eguneko egikaritze epearekin eta obran 27 pertsona okupatuko dituelarik, 20 enpresan integratutakoak eta 7 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Limpiezas Industriales Fernández S.A.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluaaren arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

O.E.
ALKATEAK,

OIARTZUNGO UDALA

IDAZKARI ZA

OIARTZUNGO UDALA